

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Arreta-faltarekin eta hiperaktibitatearekin diagnostikatutako lau ikasletatik hiru mutilak dira

Eskola Kontseiluak Nafarroako ikasleen % 2,75i eragiten dien sindrome horri buruzko txostena aurkeztu du

Viernes, 08 de mayo de 2015

Arreta-faltarekin eta hiperaktibitatearekin diagnostikatutako lau ikasletatik hiru mutilak dira, Nafarroako Eskola Kontseiluak ostiral honetan aurkeztutako [azterketa](#)tik ondorioztatzen denez.

ADHI, ANDAR eta Sarasate elkarteei lotutako 75 familia inguruk osatutako galdetegi batetik eta Hezkuntza Departamentuak emandako errolda-datuetatik abiatuz egindako txostenak ondorengo adierazten du: diagnostiko-kopuruak "nabarmen" egin duela gora azken urteotan. 2009an kopurua mila ingurukoa bazen, lau urte geroago ia halako hiru zen (2.940 ikasle), hau da, unibertsitate kanpoko mailetako ikasleen % 2,75.

Hezkuntza-etapen arabera, diagnostikatutako ikasle-kopuru handiena Haur eta Lehen Hezkuntzan pilatzen da (1.219 ikasle), eta DBHn (1.234 ikasle); derrigorrezko hezkuntzaren ondokoetan kasu-kopurua nabarmen jaisten da (diagnostikatutako 487 pertsona).

Portzentajeen arabera, DBHn ikusten dira diagnostikatutako kopuru handiena (% 4,84); derrigorrezko hezkuntzaren ondokoetako etapetan, berriz, Hasierako Kualifikazio Profesionaleko Programetan (% 6,98).

Ikastetxeak aintzat hartuz, sare publikoak itunpekoak baino diagnostikatutako ikasle gehiago eskolatzen ditu (1.700 eta 1.240 ikasle, hurrenez hurren). Nolanahi ere, proportzionalki, itunpeko ikastetxeek publikoek baino portzentaje handiagoa hartzen dute (% 3,34 eta % 2,56, hurrenez hurren). Halaber, ez dirudi ikasleen maila sozio-ekonomikoak eta kulturalak "era hautemangarrian" eragiten duenik TDAHn.

Datu horiek guztiak txostenaren aurkezpenean eman dituzte Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakari Pedro Gonzalezek, eta azterketaren egileek: Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio Atalburu Ángel Sanzek; Nafarroako Unibertsitateko Raquel Artuch-ek eta Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroko (CREENA) Isabel Aracamak.

Laguntza psikologikoaren onurak

[Eskola Kontseiluko webgune](#)an eskuragarri dagoen txostenak laguntza psikologikoak zer onura dituen aipatzen du. Hala, ondorioztatzen du, tratamendu psikologikoa jasotzen duten pertsonen botikak bakarrik hartzen dituztenek baino emaitza hobekak lortzen dituztela, oro har. Emaitza horiek are hobekoak dira, gainera, gurasoak informazio-

saioetara joaten badira.

Familiak emandako informazioaren arabera, tratamenduari esker, neska-mutilen bilakaera ona izan da azterketa hiru esparruetan (pertsonala, familiarra eta eskolakoa), eskolakoan bereziki. Beste aurrerapen batzuen artean, aipagarriak dira eskolakideekin "egoki" erlazionatzen direla, eta ikasle modura beren buruaz duten ikuspegia hobetu dutela.

Gainera, adierazi dute elkarteetara joan izanak beren seme-alaben jokabide, jarrera eta emoziozko erantzunak hobeto ulertzen lagundu diela. Halaber, eskolako alderdiak nola indartu ikasteko balio izan die eta eguneroko errutinak antolatzeke, bai eta seme-alabak ikasten duten ikastetxearekiko harremana hobetzeko ere.

Txostena

Argitalpenak Nafarroan TDAHek duen egoera aztertzen du askotariko ikuspegi batetik. Lehenik eta behin, estatistika-azterketa bat eskaintzen du eguneratutako datuekin. Jarraian, familiak desorekaren gainean duten hautematearen ikuspegi empirikoa, hezkuntza-sistemak haren aurrean eman beharreko erantzuna, eta arrakastako lau esperientzia.

Estatistika-alderako, Eskola Kontseiluak Hezkuntza Departamentuaren laguntza jaso du, Nafarroan diganostikatutako 3.000 ikasle ingururen errooldako datuak emanez. Horri esker, diagnostikoek azken bost urteotan zer bilakaera izan duten jakin ahal izan da, ikasle bakoitzaren ikastetxe, hezkuntza-maila, sexu, sare eta ereduari lotuta.

Familien informazioa jasotzeko, galdetegi bat egin zen Nafarroako TDAHeko hiru elkarte handien laguntzarekin (ADHI, ANDAR eta Sarasate); haren barnean, adingabekoen banakako bilakaerari buruzko galderak sartzen ziren, elkarteetara joan aurreko eta ondorengoekin, bai eta haren ezaugarri pertsonalak ere. Horren ondoren, 75 familia elkartekide inguruk emandako erantzunen azterketa kualitatiboa egin zen.

Bestalde, atal bat gorde da hezkuntza-arlotik sustatutako neurrietarako TDAH-i aurre egiteko. Bertan, lege-esparrutik eskolako esku-hartzeraino hartutako erabakiak aipatzen dira.

Azkenik, jardunbide egokien lau adibide ematen dira. Hiru, ADHI, ANDAR eta Sarasate elkarteek sustatutako berriazko programei dagozkie, eta laugarrena, Sarrigurengo Santa Maria la Real-Maristak ikastetxeko TDAH ikasleen artatze eta laneko programari.